

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Atal honetan, gure ideia aurrera eramateko beharko ditugun funtsezko baliabideak zehaztuko ditugu.



Gure proiektua funtziona dezan elementu garrantzitsu batzuk zerrendatzea baliogarria da. Hortaz, aplikaziorako behar ditugun elementu garrantzitsuenak hurrengo hauek izango dira:

<b>BALIABIDE FISIKOAK</b>	<b>BALIABIDE INTELEKTUALAK</b>	<b>GIZA-BALIABIDEAK</b>	<b>FINANTZA BALIABIDEAK</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Mugikorra</li><li>• Ordenagailua</li><li>• Supermerkatuak</li><li>• Bulegoa</li><li>• Kartelak eta hauek egiteko materialak</li><li>• Sare sozialak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Gure sormena</li><li>• Informatikako eta webgune eta aplikazioa diseinatzeko dauzkagun ezagutzak eta trebetasunak</li><li>• Antolaketarako abileziak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Gure taldea</li><li>• Aplikazioa garatzeko informatika enpresa</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Kolaboratzen duten elkarteak, gure kasuan ONCE elkarteak,</li><li>• Aplikazioa deskargatzerakoan 4,99 euro ordainduko duten prezioa hilabetero</li><li>• Gure aurrezkiak</li></ul>

	<ul style="list-style-type: none"><li>• Arduradunen, langileen eta gizarte-zerbitzu desberdinen elkarlana eta laguntza</li></ul>		
--	--	--	--

Aurrekoaren harira, aipatzekoa da aplikazioa aurrera eramateko oinarrizko ezagutza teorikoak baditugula: ikusmen urritasun motak zeintzuk diren, Braille-ren oinarrizko maneia, baliabide ezberdinen ezarpena, komunikatzeko egokitzapenak/baliabideak... Oinarrizko ezagutzak ez ezik, teknologia berriekin, aplikazio informatikoekin eta sare sozialekin ere nahiko ondo moldatzen gara. Gainera, gure produktuarekin ekiteko baliabideak erraztasunez eskuratu ahal ditugu. Izan ere, gure proiekturako soilik aplikazio informatikoa garatu beharko genuke, eta horrek, kostu nahiko murriztua du. Gauzak horrela, ordaindu beharreko gauza bakarra patentea izango litzateke.